# AuzoEkin Tolosa (2025)

## 4. Eremua:
## Iparragirre-Bidebieta-Sputnik-Igaralde-Zabalarreta-Kondeko Aldapa




## 5 saioa: Proposamenak lehenestea

### Lekua:

Tolosako EPA, Igeralde Kalea, 23.

### Data:

2025eko Azaroak 3, astelehena. 18:00-20:00

### Parte-hartzaileak:

- **Auzokideak:** 35 pertsona
  - 14 emakume
  - 21 gizona
- **Udal Teknikariak:**
  - Garikoitz Lekuona, Gobernantza arloko Teknikaria
  - Lide Olalde, berdintasuna eta parte-hartzean soziologo aditua.
- **Dinamizazio taldea:** Garoa Gartziandia y María Alonso del Val (Aise kooperatiba)

### Helburua:

Eremuaren bost urteko plangintza estrategikoaren barruan lehentasunezkotzat hartuko diren proposamenak hautatzea, modu parte-hartzaile eta irekian. Azken horiek, ondoren, udaleko teknikariei bidaliko zaizkie, bideragarritasuna eta garapenerako ibilbidea aztertzeko.

### Saioaren garapena:

Igeralde kaleko EPAn gauzatu zen saio honetan, 4. eremuko auzo guztietako herritarrek parte hartu ahal izan zuten. Han izan ziren Garikoitz Lekuona, Tolosako Udaleko Gobernantza Saileko teknikaria, Lide Olaldek lagunduta, eta Aise-ko bideratze-taldea.

Saio honetan, dinamika parte-hartzailearen bitartez, prozesuaren fase honetan jasotako eta aldez aurretik Talde Eragileko ordezkaritza batek sailkatu eta iragazitako proposamenei lehentasuna eman zitzaien, hiru aldagairen arabera.

Parte-hartzea aitortuz eta eskertuz hasi zen saioa, prozesua kokatuz eta aniztasunari ongietorria emanez, bateratze ariketa txiki batekin:
- *Nork parte hartzen du Talde Eragilean?*
- *Nortzuk datoz gaur lehenengo aldiz?*
- *Nortzuk datoz … auzotik?*

Jarraian, dinamika azaldu zen eta talde txikietan bildu ziren parte-hartzaileak. Horretarako, Talde Eragilea erdigunean kokatu zen, eta eskatu zitzaien aniztasun irizpideetan oinarritutako taldeak aukeratzeko: Genero aniztasuna, adina, bizi diren auzoa eta abar. Talde txiki hauek proposamenen lehentasunen inguruan eztabaidatu eta akordioak lortzeko ideiarekin, auzoetan aurreikusten diren behar ezberdinak kontuan hartuta.

Proposamenak lehenesteko, bi erronda egin ziren, arlo estrategikoetan sailkatuta zeuden proposamen guztiak behatuz, eta haietan proposamenei lehentasuna eman zitzaien hiru koloretako gometxak erabiliz; hala, talde bakoitza bi aldiz pasatu zen panel guztietatik.

- **Berdea.** Eremuan eragin handiena izango duten proposamenak adierazteko, bai pertsona gehiagori eragiten dietelako, bai proposamen eraldatzaileagoak direlako, edo pertsonengan eragin sakonagoa edo iraunkorragoa izango dutelako.
- **Horia.** Premia handiena duten proposamenak edo talde jakin batzuen berehalako beharrei erantzuten dietenak seinalatzeko.
- **Gorria.** Proposamen bideragarrienak edo ahalegin eta baliabide gutxiagorekin ibilbide luzeena izan dezaketenak adierazteko.

Taldeak antolatu, dinamika azaldu eta zalantzak argitu ondoren, talde bakoitzari gometx kopuru mugatu bat banatu zitzaion (40 berde, 20 hori eta 20 gorri), parte-hartzaileak aretoan banatu ziren eta, adostasunez, aldez aurretik iragazi eta Hiri Agendako 10 Arlo Estrategikoetan antolatuta zeuden prozesuan zehar jasotako 96 proposamenen artean aukeratu zuten. Hona hemen dinamikaren emaitzak.

## Proposamenak

**AE1. LURRALDEA, PAISAIA ETA BIODIBERTSITATEA / AE1. TERRITORIO, PAISAJE Y BIODIVERSIDAD**

| | | Mayor importancia / Impacto, transformación | Mayor urgencia / Necesidad inmediata | Mayor viabilidad / Menor esfuerzo y recursos |
|---|---|---|---|---|
| LE1. Lurralde- eta paisaia-identitatea indartzea. | AO1.3. Zabalarreta: Naturari eta historiari buruzko erakusketa panel informatiboetan. Zuhaitzei eta faunari buruzko informazioa emango duten elementuak jartzea, plastiko birziklatuz eginda, argazki eta QR bidez. Ibilbide botanikoa osatzea. | 2 | 0 | 2 |
| | AO1.9. Zabalarreta: Zentzumenak aktibatzeko eta ongizatearen paisaia indartzeko lorategi bio-osasungarria sortzea. | 0 | 1 | 1 |
| LE2. Ekosistemak kontserbatu eta konektatzea. | AO1.2. Auzoko biodibertsitatearen kontserbazioa. Zabalarretan bizi diren txori, hontza eta kattagorrien zaintza eta jarraipena, Aranzadirekin elkarlanean. | 1 | 0 | 4 |
| | AO1.6. Zabalarreta: Ur-puntu bat sortzea tokiko fauna eta animalia txikientzat. | 0 | 0 | 1 |
| LE3. Lurzorua eta lurraldearen erabilerak modu jasangarrian kudeatzea. | AO1.1. Zabalarreta: Berdeguneen, ertzen eta ezponden kalitatea eta mantentze-lanak areagotzea. Zuhaitzak eta belarra zaintzea, inausketa eta saneamendu lanak egitea, hazia botaz. | 6 | 5 | 2 |
| | AO1.4. Zabalarreta: Itzalguneak landare estaltzaileekin edo material naturalekin egokitzea, eta pasabideetan argiak jartzea. | 6 | 5 | 2 |
| | AO1.5. Zabalarreta: Eguzkitan dauden guneak zuhaixka eta lore biziekin koloreztatzea, ingurune atseginago eta anitzagoa sortzeko. | 1 | 0 | 0 |
| LE4. Espazio degradatuak berreskuratzea. | AO1.10. N-1 errepidearen ondoan landare-hesi bat sortzea, trafikoaren zarata murrizteko eta bizilagunen bizi-kalitatea hobetzeko. Zuhaitz eta zuhaixka trinkoak, pantaila natural akustiko gisa, Gipuzkoako klimara egokitutako espezie autoktonoen bidez, eta ezponda txiki bat eraginkortasun handiagorako. | 8 | 2 | 1 |
| LE5. Ingurumen-hezkuntza eta lurraldearekiko lotura sustatzea. | AO1.7. Zabalarreta: Parkea ingurumen-hezkuntzarako espazio gisa erabiltzea, ikastetxeekin elkarlanean. | 2 | 0 | 2 |
| | AO1.8. Zabalarreta: Elikaduraren inguruko hezkuntza eta belaunaldi arteko topaketarako baratzea antolatzea. | 0 | 0 | 0 |

## **AE2. HIRI-EREDUA** / AE2. MODELO URBANO

| | | Mayor importancia / Impacto, transformación | Mayor urgencia / Necesidad inmediata | Mayor viabilidad / Menor esfuerzo y recursos |
|---|---|---|---|---|
| **LE6. Lehendik dauden hiri-ehunak birsortzea eta kualifikatzea..** | AO2.1. Hiri-bizitasuna handitzea erabilerak nahastuz eta beheko solairuak berraktibatuz. Hasiera Otsabi Denak tabernaren inguruan, udalaren jabetzako lokaletan, eta, ahal den neurrian, pribatuak ere sustatuz. | 5 | 1 | 1 |
| | AO2.11. Izaskun auzoko plaza erabat birgaitzeko proiektua, egonkortasuna eta drainatzea hobetzeko. | 8 | 2 | 0 |

## **AE2. HIRI-EREDUA** / AE2. MODELO URBANO

| | | Mayor importancia / Impacto, transformación | Mayor urgencia / Necesidad inmediata | Mayor viabilidad / Menor esfuerzo y recursos |
|---|---|---|---|---|
| **LE6. Hiri-ehun daudenak birsortu eta kalifikazioa hobetzea.** | AO2.12. Iberdrolari presioa egitea eta jarraipena bermatzea Bidebietako transformadorea konpontzeko eta ingurua hobetzeko. | 2 | 0 | 4 |
| | ~~AO2.13bis. Herritik Zumari handira igotzeko bidearen garbiketa eta mantentze-lana egitea (goroldioa, zuhaitz gaixoak eta sasiak kentzea).~~ | | | |
| **LE7. Espazio publikoak eta ekipamenduak klima-aldaketara egokitzea.** | AO2.2. Zabalarretan mugimendu-elementuak dituen haur-parkea jartzea (menditxoak, zuhaitz-enborrak, tirolina, kalistenia...). | 1 | 0 | 0 |
| | AO2.8. Zabalarretan pergola edo kiosko bat jartzea (toldo txuria). | 1 | 0 | 0 |
| | AO2.9. Urmaelaren inguruan jarduerak egiteko gune lau eta egoki bat prestatzea. | 1 | 0 | 3 |
| | AO2.10. Lasaitasunerako eta atseden hartzeko gune bat sortzea Zabalarretan, landareekin edo egurrez konpartimentatua (25 pertsonarentzako). | 0 | 0 | 0 |
| | AO2.15. Sputnik: iturri apaingarria bankuekin eta edateko ur-iturri batekin ordezkatzea, zuhaitzak landatuz. | 3 | 1 | 1 |
| **LE8. Energia-eraginkortasuna eta eraikin birgaitzea hobetzea.** | AO2.3. Zabalarretako argiztapena hobetzea LED luminaria adimendunekin eta inausketa kontrolatuekin. | 8 | 7 | 3 |
| | AO2.13. Sputnik-eko argiztapena berrikustea eta banaketa hobetzea. | 3 | 3 | 0 |
| | AO2.12bis. Iparragirre kaleko 3. zenbakiaren parean estolderia berritzea eta espaloia zabaltzea. | 4 | 7 | 1 |
| **LE9. Natura, ura eta erosotasun klimatikoa integratzea hiri-diseinuan.** | AO2.5. Paperontziak, mahaiak eta eserlekuak modu orekatuan eta ingurunearekiko errespetuz kokatzea Zabalarretan. | 2 | 0 | 2 |
| | AO2.14. Sputnik-eko espaloiaren erdian dagoen zuhaitza kentzea, irisgarritasuna hobetzeko. | 4 | 1 | 1 |
| **LE10. Irisgarritasuna, bizigarritasuna eta hurbiltasuna indartzea.** | AO2.4. Zabalarretako komun publikoak konpondu, ireki eta mantentzea. | 6 | 10 | 8 |

**Oharra:** Saio honetan ez zen hurrengo proposamena baloratu: *"AO2.13bis. Fuerte Olmora eta herrira igotzeko bidearen garbiketa eta mantentze-lana egitea (goroldioa, zuhaitz gaixoak eta sasiak kentzea)".* Aise-ko lantaldeak egindako itzulpen akats bat izan da. Jatorrizko proposamena, Talde Eragileak ekarri zuen moduan honako hau zen: *"Bidebietatik zumardi handirako jaitsierak. Aldapa arriskutsua, goroldioz beteta, zuhaitzak, asteburuko parrandak … MINIMO LIMPIAR el musgo del camino que existe para bajar por debajo de la autovía al Prado Grande porque está muy resbaladizo."* Hortaz, egindako akatsarengatik barkamena eskatzen dizuegu eta proposamena berreskuratzen dugu.

## **AE2. HIRI-EREDUA** / AE2. MODELO URBANO

| | | Mayor importancia / Impacto, transformación | Mayor urgencia / Necesidad inmediata | Mayor viabilidad / Menor esfuerzo y recursos |
|---|---|---|---|---|
| **LE10. Irisgarritasuna, bizigarritasuna eta hiri-hurbiltasuna indartzea.** | AO2.6. Zabalarretako sarbideak eta irisgarritasuna hobetzea (bide seguruak eta irristagaitzak). | 4 | 1 | 0 |
| | AO2.7. Zabalarretaren zaintza eta mantentze-lana planifikatzea, auzotarren eta udalaren artean koordinatuta. | 1 | 2 | 1 |
| | AO2.16. Kale-garbiketarako udal langile kopurua handitzea eta animaligorotzen garbiketa indartzea. | 5 | 2 | 1 |
| | AO2.17. Arratoiak eta izurriteak kontrolatzeko udal-plana (Iparragirre, 18ko aldapa, Izaskun). | 7 | 9 | 3 |
| | AO2.18. Iturri bat jartzea Inmakulada Ikastolako haur-parkean. | 3 | 0 | 3 |
| | AO2.16bis. Komun publiko berriak instalatzea Sputnik-en. | 6 | 3 | 0 |
| | AO2.15bis. Igaralde plazan haur eta gurasoentzako espazio estalia jartzea. | 6 | 1 | 2 |

## **AE3. KLIMA-ALDAKETA** / AE3. CAMBIO CLIMÁTICO.

| | | Mayor importancia / Impacto, transformación | Mayor urgencia / Necesidad inmediata | Mayor viabilidad / Menor esfuerzo y recursos |
|---|---|---|---|---|
| **LE11. Lurraldearen erresilientzia klimatikoa areagotzea.** | AO3.1. Zabalarretako parkea klima-babesleku eta ingurumen-heziketarako gune gisa birgaitzea: itzalguneak, zuhaitz anitzak, ur-iturriak, zoladura iragazkorrak eta atsedenguneak integratuz. | 2 | 0 | 0 |
| | AO3.5 Suhiltzaileen biribilgunean, espaloietan eta oinezkoentzako sarbideetan zuhaitzak eta askotariko landareak landatzea, udalerriko sarrera hori duintzeko eta klima-aldaketaren ondorioak arintzeko. | 5 | 3 | 5 |
| **LE12. Isurien murrizketa eta arintzea sustatzea.** | AO3.3. Argiteria publikoan eta udal-zerbitzuetan energia-eraginkortasuneko irizpideak aplikatzea, LED teknologia adimenduna erabiliz. | 3 | 1 | 1 |
| **LE14. Uraren kudeaketa eta arrisku naturalen integrazioa sustatzea.** | AO3.2. Korridore Berdeen eta Espazio Iragazkorren Sarea sortzea, Zabalarreta, Izaskun eta Bidebieta lotuz, biodibertsitatearen, erregulazio termikoaren eta oinezkoen mugikortasunaren euskarri gisa. | 3 | 0 | 0 |
| **LE15. Kultura klimatikoa eta herritarren ekintza sustatzea.** | AO3.4. Zabalarreta: Aterpe klimatikoari buruzko informazio-elementuak jartzea eta karbono-xurgapenaren inguruko azalpenak ematea, herritarrak sentsibilizatzeko. | 0 | 0 | 1 |

## **AE4. BALIABIDE NATURALEN KUDEAKETA ETA EKONOMIA ZIRKULARRA** / AE4. GESTIÓN DE RECURSOS NATURALES Y ECONOMÍA CIRCULAR.

| | | Mayor importancia / Impacto, transformación | Mayor urgencia / Necesidad inmediata | Mayor viabilidad / Menor esfuerzo y recursos |
|---|---|---|---|---|
| **LE16. Hiri-hondakinak murriztu, berrerabili eta birziklatzea.** | AO4.4. Konpostatzeko kanpaina bat garatzea Zabalarretan, hondakin organikoa Garbigunera eramateko eta puntu berdea kokatzeko: ontziak, organikoa eta papera bereizita biltzeko. | 0 | 0 | 0 |
| **LE17. Uraren, energiaren eta materialen erabilera-eraginkortasuna sustatzea.** | | | | |
| **LE18. Ekonomia zirkularra eta berrikuntza berdea bultzatzea.** | AO4.2. Ingurumenarekiko sentsibilizazio eta erantzukidetasun partekatuko programak garatzea, jasangarritasunari eta ekonomia zirkularrari buruzko kanpainak, prestakuntza eta lankidetza-proiektuak barne. | 1 | 0 | 0 |
| **LE19. Baliabide naturalen eta paisaia produktiboaren kudeaketa jasangarria sendotzea.** | AO4.1. Mantentze Lan Prebentiborako eta Garbiketa Parte-hartzailerako Plana garatzea, udalaren eta herritarren arteko lankidetza uztartuz, altzari, zoladura eta argiztapenaren kontserbazioa bermatzeko. | 1 | 1 | 1 |
| **LE20. Kontsumo arduratsu eta jasangarriaren inguruan sentsibilizatu eta heztea.** | AO4.3. Edukiontzien mantenua eta zaintza hobetzea; adibidez, Igaralden pedalekin irekitzen ez diren edukiontziak konpontzea. | 4 | 2 | 2 |

## **AE5. MUGIKORTASUN IRAUNKORRA** / AE5. MOVILIDAD SOSTENIBLE.

| | | Mayor importancia / Impacto, transformación | Mayor urgencia / Necesidad inmediata | Mayor viabilidad / Menor esfuerzo y recursos |
|---|---|---|---|---|
| **LE21. Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna indartzea.** | AO5.1. Izaskungo iturriaren ondoan dauden bizikleta zaharrak kentzea. | 3 | 0 | 3 |
| | AO5.2. Bizikletentzako aparkaleku berriak jartzea puntu estrategikoetan: Bidebieta/Igeralde (autopistaren azpian), Zabalarretan (Igaralderantz) eta Izaskungo iturriaren ondoan (daudenak handitzea). | 6 | 7 | 5 |
| **LE22. Garraio publikoaren konexioa eta kalitatea hobetzea.** | AO5.4. EPAren ondoko Autobus-geltokia lekuz aldatzea eta markesina bat jartzea. | 6 | 6 | 2 |
| | AO5.12. Sacramentinoetatik Berazubira irisgarritasuna hobetzea, igogailua, eskailerak edo arrapala mekanikoa jarriz. | 11 | 7 | 3 |
| **LE23. Ibilgailu pribatuaren erabilera murriztu eta aparkalekua optimizatzea..** | AO5.9. Bizilagunentzako aparkaleku esklusiboak ezartzea (Bidebietako aparkalekuan Galiboa kontrolatzea, Igaralden OTA ezartzea, eta udalaren aldetik zaintza areagotzea). | 8 | 4 | 4 |
| | AO5.10. OTA sistema ezartzea auzo guztietan. | 1 | 0 | 0 |
| | AO5.11. Autokarabanen eta egonaldi luzeko ibilgailuen aparkamendua arautzea (EPA–Amarotz errepidean), lanerako ibilgailuak dituzten bizilagunei lehentasuna emanez. | 5 | 1 | 2 |

| | | Mayor importancia / Impacto, transformación | Mayor urgencia / Necesidad inmediata | Mayor viabilidad / Menor esfuerzo y recursos |
|---|---|---|---|---|
| **LE23. Ibilgailu pribatuaren erabilera murriztu eta aparkalekua optimizatzea.** | AO5.15. Bidebietako iturria lekuz aldatzea edo iturri berria jartzea, haurrek errepidea zeharkatu behar ez izateko. | 1 | 0 | 3 |
| **LE24. Irisgarritasun unibertsala eta bide-segurtasuna bermatzea.** | AO.5.17. Iparragirre auzoan, Amarotzera igotzen den errepidean: asfaltoan zuloak konpontzea, bereziki autobideko zubiaren azpian eta zaborrontzien ondoan. Eta zebra-bide altuak abiadura murrizteko. | 5 | 3 | 2 |
| | AO5.3. Igaralde kalearen birgaitzea eta berrurbanizazioa: asfaltatzea, seinaleztapena, pasabide goratuak, arrisku-murrizketa eta larrialdietarako guneak. | 10 | 4 | 2 |
| | AO5.5. Urrutitxoko aldapako zirkulazioa noranzko bakarrekoa bihurtzea. | 0 | 0 | 1 |
| | AO5.6. Urrutitxoko aldapako bidegurutzearen aparkalekua kentzea (istripuen arriskua murrizteko). | 1 | 0 | 1 |
| | AO5.7. Kondeko aldaparen birgaitzea: abiadura murriztea, zebra-bideak zabaldu, espaloiak berdindu eta irisgarritasuna hobetu. | 6 | 6 | 3 |
| | AO5.8. Kondeko aldapatik beilatokira doan espaloian, batez ere eskola-orduetan (8: 45-9: 15, 12:15-12: 45, 14:45-15: 15 eta 16:45:17:15), trafikoa eta oinezkoak oztopatzen dituzten autoak aparkatzea saihesteko neurriak hartzea. | 6 | 0 | 4 |
| | AO5.13. Berazubiko eskaileren bukaeran zebra-bide bat jartzea, ikusgarritasuna hobetzeko. | 6 | 2 | 4 |
| **LE25. Mugikortasun inklusiboa, osasungarria eta hezitzailea sustatzea.** | AO5.16. Barandila bat jartzea Zabalarretako eskaileretan (farmaziatik Denak aldera). | 2 | 8 | 4 |
| | AO5.14. Sputnik inguruan mojoi bat jartzea anbulantzien eta larrialdi-zerbitzuen pasabidea bermatzeko. | 4 | 1 | 1 |

## **AE6. GIZARTE-KOHESIOA** / AE6. COHESIÓN SOCIAL

| Lerro estrategikoa | Ekintza | Mayor importancia / Impacto, transformación | Mayor urgencia / Necesidad inmediata | Mayor viabilidad / Menor esfuerzo y recursos |
|---|---|---|---|---|
| **LE26. Ekipamenduetarako sarbide bidezkoa bermatzea.** | AO6.2. Jarduerak antolatzeko eta topagune estali gisa erabiliko den gizarte-, kultura- eta auzo-lokal bat sortzea (EPA / Otsabi / Gorrotxategi, Igaralde). | 10 | 3 | 1 |
| | AO6.15. Inmakulada Ikastolaren ondoko patioan haur eta familia-jardueretarako gune estali multifuntzional bat sortzea. | 1 | 0 | 0 |
| **LE27. Sare komunitarioak eta auzokideen arteko bizikidetza indartzea.** | AO6.1. Izaskun auzoko jaiak berreskuratzeko lan-talde edo batzorde bat sortzea. | 1 | 0 | 1 |
| | AO6.3. Udalarekin komunikazioa errazteko auzo elkarte bat eratzea, bere lokal propioarekin. | 10 | 5 | 7 |
| | AO6.4. Denbora-bankua sortzea, zerbitzuen trukea eta elkarren laguntza sustatzeko. | 2 | 0 | 1 |
| | AO6.5. Belaunaldien arteko jarduerak antolatzea. | 2 | 0 | 0 |
| | AO6.13. “Harrera-auzoa” programa: bizikidetza, auzokideen arteko sareak eta elkartasuna sustatzeko plana. | 1 | 1 | 0 |
| **LE28. Genero-berdintasuna eta aniztasuna sustatzea.** | AO6.12. Euskalduntze-programa bat garatzea auzoan, euskara eta euskal kultura kohesio- eta aniztasun-tresna gisa sustatzeko. | 4 | 1 | 0 |
| **LE29. Ongizatea eta zaintza bizitzaren etapa guztietan bultzatzea.** | AO6.6. Adineko pertsonentzako arreta-proiektua garatzea (laguntza, dinamizazioa eta beharrei erantzutea). | 4 | 5 | 0 |
| | AO6.10. Txakurrentzako gune egokiak sortzea (adibidez, tanatorioaren aurrean), arauak betetzea eta bizikidetza errespetatzea bermatuz. | 1 | 1 | 1 |
| | AO6.11. Zabalarretan txakurrentzako gune berezi bat sortzea, ur-puntuarekin eta erabilera-arauen seinaleztapenarekin. | 2 | 2 | 1 |
| **LE30. Parte-hartze soziala eta herritarren erantzunkidetasuna sustatzea.** | AO6.7. Sputnik: gaueko erabilera arautzea eta arauak betearaztea. | 1 | 3 | 0 |
| | AO6.8. Zabalarretan 8–10 urteko haurrentzako natura-jarduerak antolatzea. | 1 | 0 | 0 |
| | AO6.9. Zabalarretan kontzertu akustikoetarako aukerak aztertzea eta erabilera-arauak ezartzea. | 2 | 0 | 2 |
| | AO6.14. Zabalarretako eta inguruko parkeetako historia, arte eta natura-ondareari buruzko txosten bat egitea. | 1 | 1 | 0 |

## **AE7. EKOIZPEN-EREDUAK ETA HIRI-EKONOMIA** / AE7. MODELOS PRODUCTIVOS Y ECONOMÍA URBANA

| Ildoa | Proposamena | Mayor importancia / Impacto, transformación | Mayor urgencia / Necesidad inmediata | Mayor viabilidad / Menor esfuerzo y recursos |
|---|---|---|---|---|
| **LE31. Tokiko eta hurbileko merkataritza dinamizatzea.** | AO7.1. Udalaren laguntzak eta administrazio-erraztasunak ezartzea auzoan negozio txikiei ekiteko, elikadura-, zerbitzu- eta oinarrizko jarduerak berraktibatuz. | 12 | 6 | 3 |
| **LE32. Berrikuntza, ekintzailetza eta ekonomia soziala bultzatzea.** | | | | |
| **LE33. Enplegu berdea eta zaintza-lanak balioan jartzea.** | | | | |
| **LE34. Industrialdeak, tailerrak eta eremu ekonomikoak biziberritzea.** | | | | |
| **LE35. Lanbide-heziketa eta lanerako txertaketa hobetzea.** | | | | |

## **AE8. ETXEBIZITZA** / AE8. VIVIENDA

| Ildoa | Proposamena | Mayor importancia / Impacto, transformación | Mayor urgencia / Necesidad inmediata | Mayor viabilidad / Menor esfuerzo y recursos |
|---|---|---|---|---|
| **LE36. Etxebizitza eskuragarria eta soziala areagotzea.** | | | | |
| **LE37. Etxebizitza-parkea birgaitu eta jasangarritasun-irizpideetara egokitzea.** | AO8.1. Izaskun auzoko etxebizitzak saneatzea eta hobetzea, energia-eraginkortasuna, irisgarritasuna eta bizigarritasuna hobetuz. | 7 | 4 | 0 |
| **LE38. Kooperatiba- eta erabilera-lagapeneko etxebizitza-formulak sustatzea.** | | | | |
| **LE39. Etxebizitzen irisgarritasuna, bizigarritasuna eta erosotasuna hobetzea.** | AO8.2. Igaraldeko 4, 6 eta 8. zenbakietako, baita Denak inguruko beheko solairuetako, etxebizitza eta lokalen legeztapena eta laguntza sustatzea, bukaera-agiria lortzeko. | 8 | 1 | 4 |
| **LE40. Etxebizitza-bazterketa saihestu eta auzoarekiko lotura-eskubidea babestea.** | | | | |

## **AE9. TRANTSIZIO DIGITALA** / AE9. TRANSICIÓN DIGITAL

| Ildoa | Proposamena | | | |
|---|---|---|---|---|
| **LE41. Auzo guztietan konektibitatea eta azpiegitura digitala hobetzea.** | | | | |
| **LE42. Administrazio elektroniko inklusibo eta irisgarria garatzea.** | | | | |
| **LE43. Arrakala digitala murriztu eta alfabetatze teknologikoa sustatzea.** | | | | |
| **LE44. Berrikuntza digitala eta tokiko ekonomia digitala bultzatzea.** | | | | |
| **LE45. Etika, segurtasuna eta datuen subiranotasuna bermatzea.** | | | | |

Oharra: *"LE43. Arrakala digitala murriztea eta alfabetizazio elektronikoa sustatzea""* ildo estrategikoari lotutako balorazio asko (5 berde eta 2 gorri).jaso ziren, baina ez dira inongo proposamen zehatzekin lotzen.

## **AE10. GOBERNANTZA ETA KALITATE DEMOKRATIKOA** / AE10. GOBERNANZA Y CALIDAD DEMOCRÁTICA

| | | Mayor importancia / Impacto, transformación | Mayor urgencia / Necesidad inmediata | Mayor viabilidad / Menor esfuerzo y recursos |
|---|---|---|---|---|
| **LE46. Auzoetako gobernantza parte-hartzailea sendotzea.** | AO10.2. Udaleko sailen arteko koordinazioa hobetzea auzoko gaietan, koherentzia, jarraipena eta komunikazio jarraia bermatuz. | 5 | 3 | 4 |
| | AO10.3. Herritarren arazo eta eskaerei erantzuteko udal-sistema eraginkor bat sortzea, jarraipena eta kontu-ematea bermatuko dituena. | 8 | 5 | 4 |
| **LE47. Erakundeen arteko koordinazioa eta kudeaketa publikoa hobetzea.** | | | | |
| **LE48. Plangintza, ebaluazioa eta kontu-ematea sustatzea.** | | | | |
| **LE49. Gardentasuna, komunikazioa eta gobernu irekia indartzea.** | AO10.4. Herritarren kexak, arazoak eta proposamenak bideratzeko plataforma digital bat sortzea; erantzunak epe jakin batean ematea eta publikoki bistaratzea derrigorrezkoa izango da. | 7 | 5 | 4 |
| **LE50. Kultura demokratikoa eta herritarren erantzunkidetasuna sustatzea.** | AO10.1. Sputnik inguruko komunitateetan eta eraikinetan protokoloak ezartzea sute-arrisku edo larrialdietarako; suhiltzaileekin eta zerbitzu publikoekin koordinatuta jardutea.. | 5 | 3 | 3 |